



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko ekainaren 2a

55. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria, “Laguntzak amatasunarengatik”, aldatzekoa. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 2004ko aurrekontuetako VI. eta VII. kapituluetako kontusailak geldiarazirik egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, zenbait liburutegi publiko aldi baterako itxi izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, musika kontserbatorioetarako irakasleak aldi baterako kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, kontserbatorio berriaren lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria, “Laguntzak amatasunarengatik”, aldatzekoa.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria, “Laguntzak amatasunarengatik”, aldatzeko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2005eko apirilaren 11ko 31. Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 24, 25, 26, 27 eta 28 zenbakiko zuzenketa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztuak.

– 1 eta 23 zenbakiko zuzenketa, Aralar parlamentu-taldeak aurkeztuak.

– 3 zenbakiko zuzenketa, Askotariko parlamentu-taldeko José Luis Etxegarai Andueza jauak aurkeztuak.

Zuzenketa 2005eko maiatzaren 12ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria, “Laguntzak amatasunarengatik”, aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren bitartez ezarri ziren laguntza batzuk familia sustengatzeko; zehazkiago, beren gain edo besteren kontura jardueraren bat duten hiru urtez azpiko haurren amentzat eta lau seme-alaba edo gehiagoko familientzat. Bi helburu dituzte: jaiotza-tasa bultzatzea eta emakume langileen laneko denbora eta etxekoa bateragarri egitea.

Nafarroako Gobernuak laguntza horiek garatu zituen maiatzaren 20ko 126/2003 Foru Dekretuaren bidez.

Aipatu laguntzak abian jartzearekin arazoak sortu dira Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioan kudeaketaren zailtasunarengatik, espedienteen kopurua oso handia delako eta alde zuzenetik ordaintzen delako, batez ere. Ezinbestekoa da aldaketaren bat egitea ama langileentzat direnetan.

Gainera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko Familiaren Zuzendaritza Nagusiak zenbait datu eskuratu ditu eta argi gelditu da oso txikia izan dela laguntzen eragina lortu nahi ziren xedeei begira; errenta apalenetan bakarrik izan da eraginkorra emakume langileen laneko denbora eta familiakoa bateragarria izateari dagokionez.

Horrek guztiak gaur egungo laguntza sistema aldatzera eramaten du; batetik, errentaren arabera mugatu eta egokitu behar dira laguntzak, errenta handientzat murriztuz, laguntzaren eraginkortasuna txikiagoa baita, eta errenta apalenez handituz, horietan ahalegin handiagoa egin behar baita; bestetik, aurretik ordaintzeko oraingo sistema aldatu behar da eta diru laguntzak emateko ohiko prozedura ezarri, deialdia egin ondotik.

Artikulu bakarra.

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legeko lehen xedapen gehigarria, "Laguntzak amatasunagatik" izenekoa, honela geldituko da:

"1. Familiari laguntzeko planaren barrenean, laguntza hauek emanen dira:

a) Beren gain edo besteren kontura jardueraren bat egiten duten hiru urtez azpiko haurren amei 1.800 euro bitarteko laguntza emanen zaie urtean, errentaren arabera, haur bakoitzeko. Jardueragatik alta emanda egon beharko dute Gizarte Segurantzaren edo Mutualitatearen araubidean eta haien errentak diru laguntzaren deialdian ezartzen diren mugen azpitik egon beharko du.

Urtero emanen da laguntza, haurrak hiru urte egin arte, jaiotegunetik, familia-harrera iraunkorra edo adopziourrekoa erabakitzen duen ebazpen administratibotik edo adopzioa onartzen duen ebazpen judizialek kontatzen hasita.

b) Lau haur edo gehiagoko familiei 360 euro emanen zaizkie urtero 18 urtez azpiko seme-alaba bakoitzeko, laugarrenetik aitzina, laugarrena barne dela, haien errentak erregelamenduz ezartzen diren mugetatik gora ez badago.

Bi laguntzak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsirik egonen dira.

2. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eman eta kudeatuko ditu laguntzak, eta langileen laneko denbora eta etxekoa bateratzeko ezartzen direnekin eta jaiotza-tasa sustatzekoekin egokituz eratuko dira.

3. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, urtero, laguntza horiek emateko deialdia argitaratuko du, baldintzak, zenbatekoa eta ordaintzeko modua zehaztuta."

Xedapen indargabetzailea. Indargabetutako arauak.

Indarrik gabe utzi da 126/2003 Foru Dekretua, maiatzaren 20koa, amatasunaren dirulaguntzak arautzen dituena, xedapen gehigarri honen a) letran ezarritako laguntzen aplikazioari dagokionez, eta maila bereko edo gutxiagoko beste xedapen guztiak, foru lege honetan aurreikusitakoaren aurka badaude.

Xedapen iragankorra. Araubide iragankorra.

Foru lege honek indarra hartu aurretik eskutatako laguntzak arautzeko, martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen "Laguntzak amatasunagatik" izeneko lehen xedapen gehigarrian agindutakoari jarraituko zaio, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa baita lege hori; orobat, amatasunaren diru laguntzak arautzen dituen maiatzaren 20ko 126/2003 Foru Dekretuan xedatutakoari.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2004ko aurrekontuetako VI. eta VII. kapitulu- tuetako kontusailak geldiarazirik egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak 2004ko aurrekontuetako VI. eta VII. kapitulu-
tuetako kontusailak geldiarazirik egoteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko urriaren 11ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du 2004ko aurrekontuetako VI. eta VII. kapitulu-
tuetako kontusailak geldiarazirik egoteari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1) Zer dela-eta daude geldiarazirik 2004ko gastuen aurrekontuetako VI. eta VII. kapitulu-
tuetako zenbait kontusail?

Alde batetik, Nafarroako Parlamentuak 2004ko ekitaldirako hasieran onetsitako gastua handitu delako; ondokoengatik, besteak beste:

1. 2003ko ekitaldiko KPIa desbideratu izanak langileen ordainsariak igotzeko kreditu gehikuntzak egin beharra ekarri zuen, indarrean dagoen hitzarmena betetze aldera.

2. Udalen funtsaren kredituak gaineratu dira Toki Administrazioiko Departamentuan, indarrean dagoen araudia betetze aldera.

3. Egiteko dago kreditu gehikuntza bat, indarrean dagoen Estatuarekiko hitzarmen ekonomiko-
tik etorritako konpromisoei aurre egitearren.

Beste alde batetik, 2004ko aurrekontuak onetsi zirenean hasiera batez aurreikusitako dirus-

arrerak gutxitu direlako; ondokoengatik, besteak beste:

1. Zerga onurak handitu dira PFEZn, alargun pentsioak hobetzeko.

2. Desdoitzeak izan dira PFEZren azken tarifaren eta enpresek 2003. urtean, PFEZgatik, atxiki-
penen taula berria aplikatzearen artean. Horren ondorioz, 2003ko ekitaldiko PFEZren aitortzen kuota diferentzialaren emaitza, oro har, espero zitekeena baino negatiboagoa izan da.

3. Volkswagen enpresak gutxitu egin du ekoizpen maila, eta horrek espero baino sarrera gutxiago ekarri du BEZean.

4. Estimaturakoak baino handiagoak izan dira inbertsioengatik kenkariak, BEZean, eta horrek sortzapean negatibo handiagoak ekarri ditu.

Horiek guztiak zenbatuta, eta egoera ekonomiko-
koa ona bada ere, ekitaldi honetako sarrerak, koi-
unturagatik, espero baino baxuagoak izango direla esan daiteke.

2) Zer departamentutan eta zer kontusailetan du eragina erabaki horrek?

Departamentu guztietan, VI. eta VII. kapitulu-
tuetako kontusailetan, eta ez erreserba-fasean ez kontabilizatuta ez zeuden zenbatekoengatik, hau da, erabakia hartu zeneko datan erabilgarri zeudenengatik. Eskatutako zerrenda eransten da.

3) Zer bitarteko eta zer prozedura baliatu dira jarduketa murriztaile horretan? Zer ebazpen eman izan dira? Zein da horien edukia?

Kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren sistema informatikoak baliatu dira.

Gobernuaren 2004ko irailaren 6ko Erabakiaren bidez onetsi zen.

OHARRA. Ondoren, euri handiak etorri ziren, uholdeak ekarri zituztenak Nafarroako hainbat

tokitan. Horrek foru lege proiektu bat tramitatzea ekarri zuen, uholdeek sortutako kalte ekonomikoak arintzearen. Proiektua pasa den urriaren 20an onetsi zen, eta horrek urriaren 20ko 9/2004 Foru Legea ekarri zuen, Nafarroako Foru Komunitatean aurtengo irailean gertaturiko uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezarri zituena. 2004ko ekitaldian aplikatu ahal izateko finantzaketa -5,1 milioi euro- aipatu erabakiak ukitutako kontusailetan blokeatutako kredituetatik lortu da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2004ko urriaren 28an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, zenbait liburutegi publiko aldi baterako itxi izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak zenbait liburutegi publiko aldi baterako itxi izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko urriaren 18ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Liburutegien Sareko langileen ordezkape-nei buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako liburutegi publikoak itxi behar izatea oso noizbehinkakoa da, eta denbora laburrez eta liburutegi txikietan gertatzen da, batik bat.

Nafarroak 70 liburutegi publiko ditu, Nafarroako Gobernuako funtzionarioak diren 92 liburutegiko arduradunek artatuak, 2003ko ekitaldiari buruzko datuen arabera.

70 liburutegi horietatik, hamabik bi liburutegiko arduradun edo gehiago dituzte, eta, hartara, Nafarroako Gobernuak kontratatutako 34 liburutegiko arduradun daude guztira haietan. Gainerako 58 liburutegi publikoak liburutegiko arduradun banak artatzen dituzte. 58 arduradun horiek plantilla organiko erabilgarriaren bi heren dira.

Egoera liburutegi nagusietan

Bi arduradun edo gehiago dituzten 12 liburutegiak Nafarroako udalerrri nagusietan zein Iruñean eta Iruñeko hiri-ingurunean daude. Eskualde mailakoak edo hirikoak izanik, hau da, demografia handiko eskualdeetan kokatuta, eskari gehiago izan ohi dute, eta, etengabeko ordutegia jartzen dute herritarren eskura, giza baliabide nahiko badaude eta udalerrien laguntza badago. Horixe da Lizarra, Tafalla, Barañain eta Burlatako liburutegi publikoen kasua, adibidez. 12 liburutegi horietako 34 arduradunak plantilla erabilgarriaren heren bat dira, eta 230.000 biztanle hartzen dituzte, hots, Nafarroako biztanleen erdia.

Egun erabilgarri dagoen liburutegiko langileen banaketa eraginkorra da. Dena den, handitu egin beharko da epe ertainean, liburutegiko ordutegia eta zerbitzua hobetzearen. Toki horietan, liburutegia irekiko dela bermatzen da, oro har, bigarren pertsona bat, gutxienez, dagoelako ustekabeko egoerei (osasun-bajak) edo programatutakoei (oporrak, prestakuntza ikastaroak,...) aurre egiteko, modu prekarioan bada ere.

Salbuespeneko kasuetan soilik etengo da bi langile arduradun dituzten liburutegien zerbitzua (aipatutako 12etatik 5 dira). Hori gertatzen da bi pertsonak ezin dutenean lanera joan, eta hori gutxitan gertatzen da. Eta horixe da, hain zuzen, Antsoingo liburutegi publikoan gertatu zena, bi langileek egun berean (irailaren 13an) aurkeztu zituzten osasun-baja, alegia. Hartara, liburutegia itxita egon zen, baje iraupena egiaztatu eta ordezkoko kontratatu ziren arte.

Halaber, Iruñeko San Pedroko liburutegi publikoak hainbat gorabehera izan ditu, iragan martxo-

an arduradunetako bat Nafarroako Liburutegi Nagusiaren Atalari atxikitako Ondare Bibliografikoaren Bulegoko buru izendatu zutenetik. Izendapena martxoaren 13an gertatu zen, eta, martxoaren 15ean, osasun-baja aurkeztu zuen liburutegi horretako beste langileak. Liburutegiak egoera prekario horretan dirau, pertsona bakarra baitago martxotik, kasuko departamentuak ez duelako onetsi oraindik egin beharreko kontratazioa, aipatu burutza lortu duen pertsona ordezkatzeko. Aipatu lanpostu hutsa bete ez eta beste arduraduna osasun-bajan egon denez, noizean behin itxi behar izan da liburutegia, eta horrek eragin negatiboa izan du zerbitzuan, pertsona bakar bat dagoelako horrenbeste biztanleri zerbitzua emateko.

Egoera horiek gorabehera, Nafarroako liburutegi publiko nagusiek (Nafarroako biztanleen erdiari zerbitzua ematen diotenenek) etengabeko zerbitzua bermatzen dute, nahiko langile baitute.

Egoera gainerako liburutegietan

Arazoa Nafarroako gainerako liburutegi publikoetan dago. 58 dira guztira, eta Nafarroako Gobernuko liburutegiko arduradun banak artatzen dituzte. Hasiera batean, pertsona bakarra nahiko da liburutegi horietatik sortzen den eskaria asetzeko, udalerrri ertain eta txikiak baitira.

Hori dela eta, kontuan hartu behar da liburutegi horietako hamahiru 2.000 biztanletik beherako udalerrrietan daudela eta lau, 1.000 biztanletik beherakoetan, eta guztiak Nafarroako Gobernuko langileek artatuak direla. Badago liburutegi bat 500 biztanletik beherako udalerrri batean.

Horregatik, ez da erraza langileak aurkitzea ordezkapenatarako. Adibidez, ezin izan dugu liburutegiko ezagutzak dituen pertsonarik aurkitu Erronkarin lan egiteko (Erronkarik 325 biztanle ditu, Iruñetik 90 kilometrora dago eta lanaldi murriztuko liburuzain lanpostu bat du). Liburutegia itxita egon da, beraz, aurtengo uztailaren 16tik abuztuaren 20ra, arduraduna osasun-bajan zegoelako eta ordezkorik aurkitu ez zelako.

Liburutegi horiek ixteko arrazoiak osasun-bajak, oporrak edo prestakuntza ikastaroak izan daitezke.

Osasun-bajarengatik denean, eta baja luzea izanen dela jakinda, hau da, ondoez hutsa izan ez dela ikusten bada, ordezkoa kontratatzen da, Administrazio gainerako zerbitzuetan egiten den bezala.

Oporrengatik, aldiz, ez da lan kontraturik egiten liburutegiko langileak ordezkatzeko, Administrazio gainerakoetan bezala, horretarako kontsignaziorik ez dagoelako aurrekontuetan. Oporrak udan

hartzea gomendatzen zaie liburutegiko langileei, eskaria ustez urriagoa baita orduan. Hala ere, urteko edozein unetan har ditzakete opor egunak langileek, euren lan eskubideekin bat. Oporraldi luzeen aurrean, eta egoeraz jabetuta, udal batzuek ordezkoa jartzen dute, bertako liburutegia ireki ahal izateko.

Langile bakarra badago liburutegian eta langileak prestakuntza ikastaroa egin behar badu, orduan itxi beharra dago liburutegia. Oso gutxitan gertatzen da hori, dena den, aipatu prestakuntza ikastaroak ezinbestekoak direnetan baliabide berriak abian jarri ahal izateko.

Udalen laguntza

Liburutegi publikoek modu jarraian eskaintzen dute kultur zerbitzua: urteko lanegun guztietan irekitzen dira eta biztanle guztiak dituzte xede: haurrak nahiz helduak, edozein kultur eta gizarte sektoretakoak izanik ere. Horren froga garbia da urtean mailegatutako 730.000 agiriak, hau da, bi agiri biztanle bakoitzeko, batez beste.

Gero eta gehiago eskatzen dute biztanleek liburutegi publiko zerbitzua, eta administrazio publikoak hobetu beharrean gaude, alor guztietan. Hasteko, irekiera ordutegia erregulatu behar da, horixe eskatzen baitute biztanleek gurea bezalako gizarte garatu batean.

Udalerrri handietako liburutegiek egoera normaltan irekiera ordutegi finkoa bermatzeko nahiko langile dituztela garbi utzi eta gero, arduradun bakarreko liburutegietan hartu beharko dira neurriak noizbehinkako ixteak ekidite aldera. Hona neurri batzuk:

Neurri administratiboak.- Osasun-bajen kasuetan, bizkortu egin behar dira ordezkorik kontratazeko tramiteak, baja hartu eta kontratua egin bitarteko aldia ahalik eta laburrena izan dadin. Liburutegi Zerbitzuak proba publikoak deitzen ditu, pertsona gaituen zerrenda bat osatu eta haiei aldi baterako kontratuak egiteko. Hala ere, eta Gobernuko departamentuen artean egindako eskumenbanaketaren arabera, Kultura eta Turismo Departamentuak ez ditu aipatu ordezkapenak kudeatzen. Horregatik, baimena eskatu da, 2005eko urtarriletik aurrera departamentuak aipatu ordezkapenak zuzenean egin ahal izateko eta, ondorioz, bizkorrago egin ahal izateko.

Giza baliabideak.- Udalerrrien laguntza oso garrantzitsua izango litzateke zerbitzu publikoaren jarraitasuna bermatzeko eta, baita ere, ordutegia zabaltzeko eta liburutegiko zerbitzuak hobetzeko. Izan ere, langileak ekarri ahalko lituzkete udalek (baten bat egiten hasi da jadanik), Nafarroako

Gobernuko langileen laguntzaile. Oso ohikoa da hori Espainiako gainerako herrialdeetan eta Europan, non liburutegi publikoak (jarraitasunagatik eta erabiltzaile kopuruagatik udalerrietako kultur zerbitzu nagusia dena) udalak kontratatutako langileek artatzen baitituzte, hurbil-hurbil egonik eguneroko gorabeherak konpontzeko baliabide gehiago eta bizkorragoak dituztelako udalek.

Neurri estrategikoa.- Nafarroako liburutegi publikoei buruzko 2002ko Legeak Nafarroako liburutegien irakurketa mapa, hau da, liburutegi publikoen plan estrategikoa prestatu behar dela ezartzen du. Aipatu irakurketa mapa prestatzen ari da egun, eta bere kokapena, dimentsioa, baliabideak eta zerbitzuak sistematizatu eta koordinatzea du helburu, aurreikusten den eskariaren arabera, eta eskarian biztanle kopuruak eragina handia duela kontuan hartuta. Hartara, irakurketa mapak zehaztu behar du zein den biztanle kopuru gutxienekoa kalitateko liburutegi publikoaren zerbitzua bideragarria izan ahal izateko. Azken finean, demografia maila kontuan hartu ohi da beste zerbitzu publiko batzuk, hezkuntza edo osasun zerbitzuak, esate baterako, ireki eta mantentzeko.

Gogoratu behar da Toki araubideko oinarriak arautzen dituen Legeak ezartzen duela udalak behartuta daudela liburutegi publikoaren zerbitzua

ematera 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, Espainian. Nafarroan, bete egiten da hori, eta Nafarroako Gobernuko langileek artatzen dituzten 70 liburutegietatik 16ren kasua da.

Nafarroako biztanleen ezaugarriak kontuan hartuta, nazioan erabiltzen den demografia maila beharrezkoa komeniko litzateke. Horrela, kalitateko kultur zerbitzua bermatzeko biztanle kopuru gutxienekoa 2.000 eta 3.000 biztanlekoa dela uste dugu, eta, nolabait, egungo liburutegi mapak bat egiten du ikuspuntu horrekin.

Gauzak horrela, irakurketa mapa zorrotza, eraginkorra eta etorkizuneko jorratu ondoren, Nafarroako Gobernuak kontratatutako liburutegiko langileek liburutegi zerbitzu hobetua eskaini ahal izateko esan dezakegu, barreiatuta eta atomizatuta egonik plantilla ugaria, eta beti urria, behar duen egungo egituraketaren aurrean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko urriaren 26an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, musika kontserbatorioetarako irakasleak aldi baterako kontratatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak musika kontserbatorioetarako irakasleak aldi baterako kontratatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko urriaren 11ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel Izu Beloso jaunak galdera egin du "Pablo Sarasate" Goi Mailako Musika Kontserbatorioetarako irakasleak aldi baterako kontratatzeari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren azaroaren 26ko 2045/2003 Ebazpenaren bidez, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta Arte eta Hizkuntza irakaskuntzen kidegoetako zenbait espezialitateetan izangai berriak sartzeko deialdiak eta kidego horietako espezialitate eta hizkuntza bakoitzari dagozkion zerrendetan azaltzen diren izangaien berrantolaketa onetsi ziren, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak urriaren 23an emandako 395/2001 Foru Aginduak ezarritakoa betez. Foru agindu hori Hezkuntza eta Kultura kontseilariak urriaren 24an emandako 497/2002 Foru Aginduaren bidez aldatu zen.

Deialdiaren bidez, izangai berriak onartzeko eta daudenak berrantolatzeko zerrendak ireki ziren Nafarroako musika kontserbatorioetarako espezialitate guztietan, bai erdi mailan, bai goi mailan (Jazz espezialitate guztiak ere barne).

Halaber, 2004/2005 ikasturtean goi mailako hirugarren maila ezartzeak ekarritako beharrak asetzeko zerrendak erabilgarri izatearren, irakasgai berriak sartu ziren dauden espezialitateetan eta espezialitate berriak sartu ziren.

Dauden espezialitateetan sartzeko aurreikusitako irakasgaiak hauexek dira:

Espezialitatea:	Espezialitatean gehitzen diren irakasgaiak
Harmonia (Jazza)	Konposizioa (Jazza)
Kantua	Ahots hezkuntza eta Fonetika eta hizkuntzak kantuari aplikatuta
Musikaren pedagogia	Irakasleen praktikak
Folklore musikala	Transkripzioa

Eta zerrendak ireki zituzten espezialitate berriak, hauexek:

Erdi mailan:

– Antzinako musikaren lantegia

– Jazzeko hastapena

Goi mailan:

– Kantua (Jazza)

– Tronboia (Jazza)

– Gorputz teknika eta mugimendua

– Musika modernoa

Arte irakaskuntzen kidegoetako irakasleak aldi baterako kontratatzeko behin betiko zerrendak Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren abuztuaren 26ko 1354/2004 Ebazpenaren bidez onetsi ziren.

Beraz, Hezkuntza Departamentuak arduraren handiz jokatu zuen Nafarroako musika kontserbatorioetarako irakasleak aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendak 2004-2005 ikasturtea hasi baino lehen eta behar besteko denboraz izateko.

Goi mailako ikasleek matrikula egiteko epea amaituta, irailaren 15ean, Hezkuntza Departamentuak bi mailetan behar ziren irakasle-plantillak taxutu ahal izan zituen (goi mailako matrikulak bi kontserbatorioetako plantilla baldintzatzen duela kontuan hartuta) eta musika irakasleak ekitaldi publikoan deitu ahal izan zituen, irailaren 23rako, 09:00etan, Hezkuntza Departamentuko ekitaldi aretoan.

Ekitaldia egindakoan geratutako lanpostu hutsak, ez baitzen behar adina hautagai aurkeztu, prentsan iragarri ziren, irailaren 26 eta 27an, Nafarroan, eta irailaren 28an, gainerako erkidegoetan, irakasleak eta profesional espezialistak aldi baterako kontratatu ahal izateko aipatu ekitaldian bete gabe geratutako lanpostuetan.

2.- Hautapen probak egin eta hautatuek barematu behar diren merezimenduak aurkezten dituzten unean hasiko dira lanean bigarren deialdian kontratatutako irakasleak.

Hautapen probak ezin dira hasi 2004ko urriaren 26a baino lehen, deialdiaren egutegiak haxe zehazten duelako: urriaren 7an, izena emateko epea amaitzen da; urriaren 19an, probak egiteko onartutako zerrenda behin betikoa argitaratzen da; eta, 19tik 26ra, izangaiek epaimahaiak baloratu behar dituen programazioak aurkezteko beharrezko 5 egun baldiodunak doaz. Espezialitateetako probak 2004ko urriaren 26tik 30era bitarte egingo dira.

Prozesua amaitutakoan, ondoko irakasleen kontratazioa aurreikusita dago (espezialitateak eta ordu kopuruak zehazten dira):

Erdi maila:

– KLARINETEA: lanaldi osoko lanpostu bat kontserbatorio profesionalen (18 ordu)

– TRONBOIA: lanaldi osoko lanpostu bat kontserbatorio profesionalen (18 ordu)

– BIOLONTXELOA: lanaldi osoko lanpostu bat kontserbatorio profesionalen (18 ordu)

Goi maila:

– KONPOSIZIOKO OINARRIAK: BAT-BATEKOTASUNA, MUSIKA TRESNEN TONUALDAKETA ETA AKONPAINAMENDUA: lanaldi osoko lanpostu bat eta asteko hamabost ordu kontserbatorio profesionalen (33 ordu)

– SAXOFOIA: asteko zazpi ordu goi mailako kontserbatorioan (7 ordu)

– TRONPA: asteko sei ordu goi mailako kontserbatorioan (6 ordu)

– BIOLINA: asteko bederatzi ordu goi mailako kontserbatorioan (9 ordu)

– MUSIKA MODERNOA: asteko hamasei ordu goi mailako kontserbatorioan (16 ordu)

– GITARRA ELEKTRIKOA (JAZZA) profesional espezialistentzat (3 ordu)

3.- Kontserbatorio ikasleek arazorik gabe hasi dute ikasturtea, irakasleak oraindik kontratatu

gabeko orduen espezialitateko eskolek izan ezik. Irakaslerik ezak ukitutako ikasleen espezialitateak hauek dira (ikasle kopurua zehazten da):

Erdi maila:

– Klarinetea (18 ordu)	16 matrikula
– Tronboia (18 ordu)	16 matrikula
– Biolontxelo (18 ordu)	16 matrikula

Goi maila:

– Konposizioko oinarriak: bat-batekotasuna, musika tresnen tonualdaketa eta akonpainamendua: (33 ordu)	50 matrikula.
– Saxofoia: (7 ordu)	4 matrikula
– Tronpa: (6 ordu)	4 matrikula
– Biolina: (9 ordu)	6 matrikula
– Musika modernoa: (16 ordu)	36 matrikula
– Gitarra elektrikoa (jazza): (3 ordu)	2 matrikula

Kontratatu beharreko irakasleen hautapen probak bukatu eta berehala hasi ahalko dituzte eskolak ikasleek, irakasleak berehalaxe hasiko baitira lanean.

4.- Bi musika kontserbatorioetako plantilla organikoen behin betiko egituraketari eta goi mailako lanpostu hutsak betetzeko oposizioetarako deialdiari esker (beharrezkoa da Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak egungo hezkuntza sistemaren araberrako espezialitate berriren zehaztapena ekarriko duen errege dekretua argitaratzea), orain baino askatasun handiagoa izanen dugu aurrerantzean ikasturtearen hasieran.

Gaur egun, Nafarroako kontserbatorioetako erdi mailako plantillak goi mailako mende daude, eta erdi mailako zein goi mailako irakasleen kontratazioa plantillek baldintzatzen dute. Plantillak ezin dira itxi goi mailako matrikula epea amaitu arte, eta epe hori goi mailako ikasleek irailan egiten dituzten errekonposizio azterketek baldintzatzen dute.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko urriaren 27an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, kontserbatorio berriaren lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak kontserbatorio berriaren lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko urriaren 11ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruelo Valencia andreak galdera egin du "Pablo Sarasate" Goi Mailako Musika Kontserbatorioari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Hezkuntza Departamentuak ahal diren jarduketak guztiak egin ditu 2003-2004 ikasturtean, Pablo Sarasate kontserbatorioaren egoera orokorra hobetzarren, behe solairuko geletan eta ekitaldi aretoan batez ere.

Hezkuntza kontseilariak bete egingen du kontserbatorio berriko obrak ahalik eta lasterren esleitzeko konpromisoa.

2003-2004 ikasturtean, Hezkuntza Departamentuak 18 ikasgela jarri zituen kontserbatorioko ikasleen eskura Iruñeko "Joaquín Maya" Musika Eskolan. Ordu-tegi eskaintza zabala zen, asteko 327,5 ordu, hain zuzen ere. Asteko batez besteko okupazioa, aldiz, 49,5 ordukoa izan zen, hau da, % 15ekoa.

222/2004 Foru Aginduaren bidez, kontserbatoriorako musika tresnen lehen erosketa bat esleitu zen, 128.566 euroko zenbatekoarekin. Egun, ekipamenduko bigarren espediente bat prestatzen ari da, 2005eko aurrekontuaren kargura tramitatuko dena. Ekipamendua bai orokorra bai musika tresnena izanen da, eta 250.000 euroko gastu-aurrekontua du, bi ekitalditan banatuta.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko urriaren 27an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak, 2005eko maiatzaren 25ean, honako ebazpen hau eman zuen:

Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusiak proposamen txosten bat eman du Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts, erakunde horren plantilla organikoan daudenak, betetzeari buruz. Erakunde horretako Zerbitzu Juridikoek eta Kontu-hartzaitza Zerbitzuek, hala nola administratzaileak ere, adostasun txostena eman dute. Horiek horrela,

EBATZI DUT:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia onestea. Ondoren ematen dira haren arauak.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratara dadila xedatzea.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 25ean

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa

Hona hemen deialdi honetako arauak:

1. araua. Orotariko baldintzak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzea:

– Lehen eta hirugarren lanpostuak txanda irekikoak dira. Horietariko baterako euskaraz jakitea berariazko betebeharra da, parte hartzeko frogatu behar dena.

– Bigarrena, igoera txandakoa.

1.2. Oposizio honetan honakoak izanen dira arau: 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta, horren osagarri, Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta hura garatu eta betearazteko eman zen Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretua.

1.3. Hautapen probak gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik, bete gabe gelditzen bada igoera txandako lanpostu hutsa, orduan txanda irekikoei gehituko zaie.

Bestaldetik, igoera txandan hutsik dauden lanpostuak baino izangai gehiagok probak gainditzen badituzte, txanda horretan lanpostuak eskuratzen ez dituztenek aukera izanen dute txanda irekiko lanpostu hutsak eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehia garbian eta eskuratutako azken puntuazioaren arabera.

Halaber, euskaraz jakitea berariazko betebeharra duen lanpostura aurkezten diren artean gehiago badira probak gainditzen dituztenak lanpostu hutsak baino, gainditu bai baina lanposturik lortu ez dutenek deialdiaren xede diren lanpostu hutsak eskuratzeko aukera izanen dute, beste izangaiekiko lehia garbian, azkenean guztira lorturiko puntuazioaren arabera. Bestetik, euskaraz jakitea berariazko betebeharra duen lanpostua hutsik utziz gero, lanpostu hori ez zaie besteei metatuko, beste deialdi baten xede izan beharko baitu.

Era berean, txanda irekiko lanpostuak eskuratzeko aukera izanen dute, aurreko lerroaldean adierazitako moduan, deialdiko 7.3. arauan agiriak aurkezteko ezartzen den epea bukatzen denean txanda horretan parte hartzeko eskakizun berariazkoak betetzen ez dituzten igoera txandako izangaiek.

1.4. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario-

entzat eta, bereziki, auditoretzako teknikari lanpostuarentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.

Beren eginkizunak Nafarroako Comptos Ganberaren Antolaketaarako Erregelamenduaren 10. artikuluan ezarri zirenak dira (Ganberako lehendakariak 1996ko maiatzaren 20an emaniko Ebazpenaren bidez onetsia eta 1996ko maiatzaren 31ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 32. zenbakia), alegia, besteak beste ondoko hauek: eskuarki auditoreek ezartzen dizkieten irizpideei jarraituz kontuen, finantzen egoera-orriren, barne kontrolaren eta orotariko antolamenduarien gorabeherak aztertu eta gainbegiratzea; unean-unean kontrolatzen diren zentro, erakunde eta bulegoetako eraginkortasun eta efizientziaz arduratzea; beren eginkizunetan arituz lortzen dituen emaitza eta ondorioen berri jakinaraztea auditoreei; eta, beren eskumenen barruan, nagusi duten auditoreak esleitzen dizkien laguntza eta lankidetzako lan guztiak.

Euskaraz jakitea berariazko betebeharra duen auditoretzako teknikari lanpostuan aritzeko izendatzen den izangaiari, hala behar denean, euskaraz egiten diren edo egin ahal izateko euskaraz jakin behar deneko auditoretzako teknikariren berezko eginkizunak dagozkie.

1.5. Izendapenak Comptos Ganberako nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko ditu izendatutakoak, xedapen indardunetan adierazitako eskubide eta betebeharrak guztiekin.

1.6. Lanpostuak B mailakoak dira eta horri dagozkion lansariak izanen dituzte, eta Nafarroako Comptos Ganberarako indarra duen plantilla organikoan zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.7. Izendatzen den izangaiari Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean afiliatu eta hartan alta emanen zaio, araubide horretan aurreikusitako babesean, baldin eta lehendik afiliatua ez badago eskubide pasiboen araubidean eta osasun eta gizarte laguntzan, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainerako xedapen osagarrietan aipatzen den hartan, zeren orduan aukeran izanen baitu bertan segitzea edo Gizarte Segurantzaren aipatu araubidean afiliatzea.

1.8. Izendatutako izangaiek lanlekua duten herrian bertan bizi beharko dute, eta hori betetzeko udalerrri horretan finkatuko dute beren bizilekua.

1.9. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta Comptos Ganberako lehendakariak noiznahi aldatzen ahalko du.

2. araua. Hautagaien betebeharrak.

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta agiriak aurkezteko deialdiaren 7.3 atalean adierazten den epea bukatzen den unetik eta lanpostuaren jabetza hartu arte, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Nazionalitatez espainiar izatea.

b) Adinez nagusi izatea.

c) Unibertsitateko Diplomadun, Ingeniari Tekniko edo Arkitekto Tekniko titulua edo titulu baliokidea edukitzea, edo aipatu titulua eskuratzeko baldintza guztiak betetzea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, edo Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturako lehen hiru kurtsoak osorik gaindituak izatea.

d) Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik baztertua ez egotea.

f) Euskaraz jakitea berariazko betebeharra duen lanpostura aurkeztuz gero, EGA edo euskarazko Gaitasun Agiria-Goi Zikloa, Hizkuntza Eskola Ofizial batek luzatua, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den erakunde batena dutela frogatu beharko dute edo bestela aski den hizkuntza mailaren jabe direla frogatzeko proba bat gainditu beharko da. Proba hori izangaiek onartu aitzin egin beharko da.

2.2. Igoera txandako izangaiek, aurreko atalean aipatu diren baldintzez gain, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik hasita deialdi honetako 7.3 arauan aipatutako agiriak aurkezteko epeak iraun bitartean eta lanpostuaren jabetza hartu arte, honako hauek bete beharko dituzte:

a) Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario izatea, eta jatorrizko lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

b) Deialdiko lanpostuen maila berean edo baxuagoan egotea.

c) Administrazio Publikoetan bost urteko antzinate onartua egiaztatzea.

2.3. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. arauan ezarritako epean eta eran egiaztatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. arau honetako 1. atalean esaten diren baldintza guztiak bete beharko dituzte hautapen prozesuak iraun bitartean.

Hautapen prozesua izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

3. araua. Eskabideak.

3.1. Oposizioan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide gisa, eredu ofizialarekin bat (deialdi honen I. eranskina). Bertan jarriko dituzte izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, bai eta zein txandatan lehiatzen diren ere: irekian edo igoerakoan. Txanda irekian, euskaraz jakitea berariazko betebeharra duen lanpostua aukeratu nahi den ere adierazi beharko da.

3.2. Eskabidean espresuki adierazi beharko da deialdi honetako 2. arauan aipatzen diren betebeharrak guzti-guztiak betetzen direla. Hori 7. arauan ezarri bezala frogatu beharko da.

3.3. Eskabideak Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta egun eta ordu baliodunetan aurkeztuko dira (astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era) Nafarroako Comptos Ganberako Erregistro Orokorrean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharramunetik hogeita hamar egun naturaleko epean. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

3.4. Minusbaliotasun aitortua duten izangaiek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskabidean eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako minusbaliotasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera minusbaliatuak direla frogatzeko agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

4. araua. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsi eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila aginduko du. Zerrenda horretan izangai onartu eta baztertuen izena adieraziko da, bai eta zein txandatan lehiatzen diren ere: irekian edo igoerakoan.

4.2. Interesatuak egoki deritzeten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharramunetik hasita hamar egun balioduneko epean.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko

zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5. araua. Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.

5.1. Kide hauek osatuko dute oposizio honetako epaimahaia:

Mahaiburua:

– Ignacio Cabeza del Salvador, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea.

Ordezkoa: José Fuertes Pérez, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea.

Mahaikideak:

– Heliodoro Robleda Cabezas, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ekonomia Finantzarioaren eta Kontabilitatearen arloko katedraduna.

Ordezkoa: Pablo Archel Domench, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ekonomia Finantzarioaren eta Kontabilitatearen arloko irakasle titularra.

– Begoña Herrera Isasi, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikaria, erakundeko langileen batzordearen ordezkari.

Ordezkoa: Antonia Aurora Zudaire Echávarri, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikaria, erakundeko langileen batzordearen ordezkari.

– Enrique Mateo Sanz, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren idazkari aholkularia.

Ordezkoa: Gloria Arancón Largo, Foru Komunitateko arartekoa aholkulari teknikoa.

Idazkaria:

– María Asunción Olaechea Estanga, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea.

Ordezkoa: Francisco Javier Sesma Masa, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea.

5.2. Epaimahaiak hautapen probak hasi baino lehen eratu beharko du eta eraketa eta jarduketa baliozkoak izateko haien kideen gehiengoak agertu beharko du, guttienez.

5.3. Epaimahaiaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

5.4. Deialdi honen arauak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

5.5. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko

azaroaren 26ko 30/1992 Legean aipatzen diren abstentzio arrazoietakoa bat gertatzen denean, epaimahaiko kideek ezin izanen dute epaimahaian parte hartu, eta deialdia egin duen organoari eman beharko diote horren berri. Halaber, izangai-ek mahaikideak errefusa ditzakete, arrazoi horietako bat gertatzen denean.

5.6. Epaimahaiak aholkulari adituena laguntza eska dezake, proba batzuetan nahiz guztietan laguntzeko. Aholkulari horiek dagozkien espezialitate teknikoetan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiari horietan baizik ez diote lagunduko.

6. araua. Oposizioaldia.

6.1. Oposizioaldia 2006ko urtarrilen hasiko da, Comptos Ganberako iragarki oholean gutxienez ere 15 egun lehenago adieraziko den tokian, egunean eta orduan.

6.2. Hiru ariketa izanen ditu, bi praktikoak izanen dira eta bestea, teorikoa. Hona hemen proben edukia eta puntuazioa:

a) Lehenengo ariketa, praktikoa: 4 ordutan kontabilitate publiko eta pribatuko kasuren bat edo beste egitea; gainera matematika finantzarioko eta estatistikako kasu praktikoa ere ager daitezke. Lehen ariketa honetan 35 puntu lortzen ahalko dira, gehienez ere, eta gutxienez 17,50 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

b) Bigarren ariketa, praktikoa: 4 ordutan epaimahaiak aurkeztutako auditorietza publiko eta pribatuko kasuren bat edo beste egitea. Ariketa honetan 35 puntu lortzen ahalko dira, gehienez ere, eta gutxienez 17,50 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

c) Hirugarren ariketa, teorikoa, guztira 30 punturekin baloratuko dena, 15 puntu gai bakoitzeko: deialdiko 2. eranskinetako lehen eta bigarren multzoko gai bana, zozketaz aukeratuak, idatziz azaldu beharko dira, lau orduz. Ariketa hau gainditzeko aukeratutako gai bakoitzari dagozkion puntuen erdia bederen atera beharko da. Alegia gai bakoitzean gutxienez ere 7,50 puntu lortu beharko dira.

6.3. Lehenbiziko bi ariketa praktikoa plika itxienez bidez zuzenduko dira. Horretarako, izangaiek, ariketa bakoitza bukatzean, idatziak dituzten orrialdak kartazal handi batean sartuko dituzte, izendeiturak agertu gabe. Horiek kartazal txikiago batean sartuko dira. Epaimahaiak zenbaki bera jarriko die bi kartazalei. Ariketak zuzendu ondoren, plikak jendaurrean irekiko dira, ariketa bakoitzaren egilea zehazteko.

6.4. Ariketa teorikoaren kasuan, proba bakoitza egin ondoren, idatziak dauzkaten orriak kartazal

batean sartuko dituzte izangaiei. Kartazal horren hegalean interesatuak eta epaimahaiko idazkariak izenpetuko dute. Idazkariak gordeko du. Behar denean, A-B-C hurrenkeran, lehiatzaileak berak izenpeturiko kartazalak epaimahaiaren aurrean ireki eta ariketa jendaurrean irakurriko du. Gero epaimahaiak kalifikatuko du.

6.5. Epaimahaiak Comptos Ganberako iragarki oholean argitaratuko du ariketa bakoitzeko emaitza, kalifikatu ondoren, eta hurrengo probaren tokia, eguna eta ordua adieraziko ditu, gutxienez ere 48 ordu lehenago.

Ariketa bakoitzaren puntuazioa izangaiek aurreko probetan lortzen dutenari metatuko zaie. Horrela oposizioko puntuazio osoa lortuko da.

6.6. Ariketa bakoitzerako dei bakarra egingen da. Horretara Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea, gidabaimena edo epaimahaiak askiesten duen beste nortasun agiri bat alboan dutela joan beharko dute izangaiek. Azterketara agertzen ez direnak edo arestian aipatutako agiritako baten bidez haien nortasuna egiaztatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.7. Oposizioaldiko probak egiterakoan, eskaera egin duten minusbaliatuendako, denbora eta baliabide aldeko egokitzapenak paratuko dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

7. araua. Probak gainditzen dituztenen zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Oposizioa bukatzen denean, oposizioa gainditu duten izangaien zerrenda argitara eman du epaimahaiak Nafarroako Comptos Ganberako iragarki oholean, puntuazioen arabera ordenaturik.

7.2. Epaimahaiak, halaber, puntuaziorik handiena lortu duten izangaien aldeko izendapen proposamena igorriko dio Comptos Ganberako lehendakariari, eta horrekin batera oposizioaren aktak eta gainerako dokumentazioa. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.3. Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epean, proposatutako izangaiek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte Nafarroako Comptos Ganberan:

7.3.1. Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario ez diren izangaiek:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua, edo izangaia nazionalitatea eta iden-

titatea frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Deialdiaren 2. arauan eskatzen den titulua-ren fotokopia konpultsatua edo titulua lortzeko eskubideen ordainagiriarena.

c) Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Atalak emandako txostena, interesatuak karguan aritzea eragotziko liokeen eritasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela frogatzeko.

Minusbaliotasunen bat alegatu duten izangai-ek, gainera, minusbaliotasun mailaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, aurretik aurkeztu ez badute, hala nola minusbaliotasuna deialdiko lanpostu-arekin bateragarria dela dioen frogagiria, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua.

d) Eginkizun publikoetarako ezgaitua edo gabetua ez izatearen, eta inongo administrazio publikoren zerbitzuetatik berezi ez izanaren zinpeko aitortpena.

e) Zin egitea edo hitz ematea, Nafarroako Foru Eraentza begiratu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela.

Nafarroako Comptos Ganbera ez den Nafarroako beste Administrazio Publikoren bateko funtzionario edo langile finkoek, gainera, aurreko administrazioeko espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzen dituen ziurtagiria, hots, sarrerari, antzinatasunari, mailari, egoera administratiboari eta abarrei buruzkoa, aurkeztu beharko dute.

7.3.2. Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario diren izangaiak:

a) Deialdiaren 2. arauan eskatu den titulua-ren fotokopia konpultsatua edo hura lortzeko eskubideen ordainagiriarena.

b) Comptos Ganberako funtzionarioa izateko, erakunde horrexek eskatzen dituen agiriak.

Minusbaliotasunen bat alegatu duten izangai-ek, gainera, hori deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua, aurkeztu beharko dute.

7.4. Norbaitek agiri horiek goian adierazitako epean aurkeztu ez baditu, behar bezala arrazoi-tutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezin izanen dute izendatu eta haren jarduketa guztiak deuseztatu eginen dira. Hori, dena dela, ez da eragozpen izanen eskubidean gezurra errateagatik izan leza-keen erantzukizuna eskatzeko.

7.5. Arestiko atalean azaldutakoa gertatuz gero, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak 7.1. atalean aipatzen den zerrendan ondotik heldu den izangaiarekin beteko du utzitako hutsunea, eta horrekin ere aurreko ataletako prozedura bera erabiliko da.

8. araua. Behin-behineko izendapena.

8.1. Aurreko 7.3 puntuan aipatzen diren agiriak aurkeztu ondoren, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak emandako ebazpen baten bidez, proposatutako izangaien behin-behineko izendapena eginen da. Ebazpen hori Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.2. Izangai izendatuek hilabeteko epea izanen dute lanpostuaren jabetza hartzeko, izendapena jakinarazten denetik hasita.

8.3. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezin-besteko kasuetan salbu, 7.3 arauan eskatzen den dokumentazioa hilabeteko epe horretan aurkeztu ez duten edo jabetza hartzen ez duten izangaiak oposizioaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten dietela ulertuko da, eta hala izanik, aurreko arauan adierazi zerrendan hurrengo den izangai-arekin beteko da lanpostua.

9. araua. Praktikaldia.

9.1. Auditoretzako teknikari izendapen behin betikoa erdiesteko, behin-behineko proposatu eta izendatutako izangaiak 6 hilabeteko praktikaldia gainditu beharko dute.

9.2. Praktikaldiari hasiera emanen zaio izenda-tutako izangaiak behin-behineko jabetza hartzen duenean. Jabetza hartzeko hilabete izanen du izendapenaren jakinarazpena jasotzen den egune-tik aurrera.

9.3. Praktikaldian izangai izendatuek Nafarroa-ko Comptos Ganberako auditoretzako teknikari guztiak dituzten eskubide eta eginbehar berberak izanen dituzte.

9.4. Nafarroako Comptos Ganberako lehenda-kariak, erakundeko beste kideei entzun ondoren, izangaiak praktikaldian izandako aprobetxamen-dua baloratuko du eta bukaeran ebazpen arrazoitu baten bidez, "gai" edo "ez gai" kalifikazioa emanen du.

10. araua. Auditoretzako teknikariaren behin betiko izendapena eta jabetza hartzea.

10.1. Hautagaiak, aurreko arauak aipatzen duen praktikaldia bukatu eta "gai" kalifikazioa lortu-rik, Comptos Ganberaren lehendakariak behin betiko funtzionario izendatuko ditu. Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10.2. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean, izangaiek karguen behin betiko jabetza hartuko dute.

10.3. Aipatu epean jabetza hartzen ez duen izangaiek oposizioaren ondoriozko eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta hala izanik, deialdiaren 7. arauan aipatzen den proposamenearan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua, dagokion praktikaldiaren ondotik.

10.4. Era berean jokatu da, aurreko atalean adierazi bezala, baldin eta aipatu praktikaldian behin-behineko izendatutako izangaiek "gai" kalifikazioa erdiesten ez badu.

11. araua. Aurkeztutako agiriak.

11.1. Izangaiek espresuki hala eskatuz gero, aurkezturiko agiriak berreskuratzen ahal dituzte, erreklamaziorik edo errekurtsorik paratu ez bada betiere. Agiriak berreskuratzeko eskaera hiru hilabeteko epean aurkezten ahal da, behin betiko izendapenaren ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta beste hiru hilabeteren buruan.

11.2. Aurreko atalean ezarritako epea agiriak eraman gabe bukatzen bada, ulertuko da izangaiek uko egin diola agiriak eskuratzeari eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsituko dira.

11.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkezturiko agiriak gorde egiten dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak eramaten ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

12. araua. Errekurtsuak.

Deialdi honen, deialdi honetako arauen, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsua, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari igorria, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko Salari zuzendua, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora

jotzeko errekurtsua paratzen ahalko da, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari igorria, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

1. ERANSKINA Eskabide eredia

Izen-deiturak:, adina:,
NAN zenbakia:, helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea):
telefono zenbakia:, adeitasunez,

Honako hau azaltzen dut:

1. Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak 2005eko maiatzaren 25ean harturiko erabakiaren berri izan dut –haren bidez, auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu betetzeko dei egin da– eta hartan parte hartu nahi dut:

2. Deialdiko 7. arauan eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditut eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean. Konpromisoa hartzen dut, izendatzen banaute, deialdiko hirugarren arauan aipatzen diren agiriak aurreikusirik epean aurkezteko bai eta behin-behineko izendapena jakinarazi eta hurrengo 30 egunetan praktikaldiko auditoretzako teknikari izateko lanpostuaren jabetza hartzeko.

3. Txanda irekia edo murriztua aukeratu nahi dut.

a) Txanda irekia, euskararik gabe

b) Txanda irekia, euskararekin

4. Euskaraz jakitea berariazko betebeharra duen lanpostua aukeratu nahi dutenendako:

– Txanda irekiaren barruan, euskaraz jakitea berariazko betebeharra duen lanpostua aukeratu nahi dut.

– Deialdiko 2.1.f) arauan aurreikusirik ondorio-
etarako, hizkuntz gaitasuna frogatzeko proba egin nahi dut (euskaraz dakitela tituluekin frogatzerik ez dutenean bakarrik).

5. a) Ez dut minusbaliotasunik

b) Badut minusbaliotasuna eta horregatik egokitzapena eskatu nahi dut (minusbaliotasunaren nondik-norakoak eta behar diren egokitzapenak aparteko orrian azalduko dira).

Horrenbestez,

ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2005ekoaren(e)an

2. ERANSKINA

Deialdiaren programa

Lehenengo saileko gaiak
Ogasun Publikoa, Zuzenbide
Konstituzionala eta Forala

1. gaia. Sektore Publikoa merkatu-ekonomian. Mugatzea, neurketa-irizpideak, garrantzia eta bila-kaera. Kontabilitate Nazionala eta Sektore Publi-koa. Ogasun Publikoa. Gaurko edukiak.

2. gaia. Sektore publikoaren jarduera esleipe-
nean eta banaketan. Merkatuaren akatsak eta
ondasun sozialak. Banaketaren ekitatea. Ondasu-
nen hornidura publikoa.

3. gaia. Ogasun publikoa pentsamendu ekono-
mikoan. Ogasun Publikoa merkantilista, fisiokrata
eta klasikoen arabera. Marginalismoa. Keynesia-
nismoa eta Ogasun Publikoari buruzko beste
eskola batzuk. Ogasun publikoari buruzko teoria
positiboak.

4. gaia. Aurrekontua hautapen sozialeko tresna
gisara. Aurrekontua: alderdi orokorrak. Aurrekontu-
en zikloa. Aurrekontuen ereduaren egungo egoera
eta etorkizuneko aukerak.

5. gaia. Aurrekontua prestatu eta exekutatzea.
Aurrekontuei buruzko erabakiak, gastu eta dirus-
arreren gainekoak: aurrekontuaren egitura. Aurre-
kontua eta plangintza eta programazio sistemak.
Aurrekontua exekutatu eta kontrolatzeko prozesua.

6. gaia. Dirusarrera publikoak eta zerga-ezaz-
penak. Dirusarrera publikoak sailkatzeko irizpide-
ak. Zerga: kontzeptua eta elementu osagarriak.
Zerga-figura nagusiak.

7. gaia. Defizit publikoa eta Ogasun berezia.
Defizit publikoa: motak eta finantzatzeko arazoak.
Aktibo publikoen pribatizazioa. Inflazioa zerga
gisa.

8. gaia. Zor publikoa eta dirugintza. Zor publi-
koaren kontzeptua, motak eta izaera. Zor publikoaren
administrazioa eta haren eraginaren analisia.

9. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa: atariko
titulua. Koroa. Gorte Nagusiak. Konstituzioaren
erreforma.

10. gaia.– Gobernua eta administrazioa.
Gobernuaren eta Gorte Nagusien arteko harrema-
nak. Botere Judiziala. Estatuaren lurralde antola-
mendua. Auzitegi Konstituzionala.

11. gaia. Administrazioa eta Zuzenbidea. Antola-
keta administratiboaren printzipio juridikoak.

12. gaia. Europako Batasuneko Zuzenbidea eta
erakundeak. Horien eragina Foru Komunitateko
antolamendu juridikoan.

13. gaia. Toki Administrazioa. Bereziki aipatu
arlo hori nola arautzen den Foru Komunitatean.

14. gaia. Erakundearen administrazioa. Bereziki
aipatu arlo hori nola arautzen den Foru Komunita-
tean.

15. gaia. 1839ko urriaren 25eko Legea. 1841eko
abuztuaren 16ko Lege Itundua. 1979ko urtarrilaren
26ko Errege Dekretu Itundua.

16. gaia. Estatuarekin sinatutako Hitzarmen
Ekonomikoak. 1990ko Hitzarmena bereziki.

17. gaia. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri
eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa. Oinarri-
ak. Nafarroako Foru Erakundeak.

18. gaia. Nafarroako Parlamentua edo Gorteak:
eginkizunak. Eraketa, antolakuntza eta eginkizu-
nak. Comptos Ganberarekiko harremanak.

19. gaia. Nafarroako Ogasun Publikoari buruz-
ko Foru Legea.

20. gaia. Nafarroako Foru Komunitateko Gober-
nua eta Administrazioa arautzen dituzten foru
legeak.

21. gaia. Nafarroako Foru Komunitateko Admi-
nistrazioaren Kontratuari buruzko Foru Legea.

22. gaia. Nafarroako Administrazio Publikoaren
zerbitzuko langileen Estatutua arautzen duen Foru
Legea.

23. gaia.– Nafarroako Toki Ondareari buruzko
Foru Legea. Dirulaguntza publikoak eman, kudea-
tu eta kontrolatzeko araubide orokorrari buruzko
Foru Legea.

24. artikulua. Barne kontrolari buruzko arauak
Foru Komunitatean.

Bigarren saileko gaiak
Auditoretza Publikoa eta Kontuen Auzitegiak,
Finantza, Kontabilitate eta
Merkataritza Zuzenbidea


1. gaia. Auditoretza eta haren motak. Sektore
publikoaren aipamen berezia.

2. gaia. Auditoretzako printzipio eta arauak.
Sektore publikoaren aipamen berezia.

3. gaia. Auditoretzako prozedura. Izaera eta
nondik norakoak.

4. gaia. Barne-kontrola. Definizioa eta helburu-
ak. Barne kontrolaren ebaluazioa auditorearen
aldetik.

5. gaia. Auditoretzaren plangintza: helburuak eta horiek gauzatzeko faseak.
6. gaia. Auditoretzaren txostenak. Kotsiderazio orokorrak eta edukia. Iritzi motak.
7. gaia. Dirusarrera eta gastu publikoen auditoretza. Enpresa publikoaren auditoretza.
8. gaia. Legezketasunaren, eraginkortasunaren eta eragimenaren auditoretza Sektore Publikoan.
9. gaia. Goi mailako entitate fiskalizatzaileak edo kontu auzitegiak. Ezagutza orokorra. Kontrolatzeko esparrua. Parlamentu eta gobernuekiko harremanak.
10. gaia. Espainiako Kontuen Auzitegiaren oraingo osaera, beraren lege organikoan eta funtzionamendu legean. antolaketa eta egitekoak. Europako Batasuneko Kontu Auzitegia.
11. gaia. Kontabilitateko erantzukizuna: izaera eta helburuak. Kontabilitateko erantzukizunaren kasuak eta hori eskatzeko prozedurak. Kontabilitateari buruzko jurisdikzioaren organoak.
12. gaia. Nafarroako Comptos Ganbera: bilakera historikoa eta gaurko arauak. Eginkizunak.
13. gaia. Nafarroako Comptos Ganbera: erakundearen izaera eta esanahia. Antolaketa eta funtzionamendua.
14. gaia. Aurrekontu-zuzenbidea: kontzeptua, edukia eta gaurko arauak. Estatuko Aurrekontu Orokorrak: prestatu, eztabaidatu eta onesteko prozedura. Aurrekontuen egitura eta aldaketak. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak gai hauek nola arautzen dituen.
15. gaia. Kontabilitate publikoa. Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra. Printzipioak, egitura eta inplantazioa. Nafarroako Kontu Orokorrak.
16. gaia. Zuzenbide Finantzarioa: kontzeptua eta edukia. Iturriak. Tributuari buruzko Foru Lege Orokorra: printzipio orokorrak eta zergapekoen eskubide orokorrak.
17. gaia. Tributuak Nafarroan: kontzeptua eta sailkapena. Zergak. Tasak. Prezio publikoak. Kontribuzio bereziak.
18. gaia. Sektore publikoa Foru Komunitatean.
19. gaia Nafarroako Tokiko Sektore Publikoa.
20. gaia Nafarroako Toki Entitateen aurrekontu eta kontabilitate araubidea.
21. gaia Nafarroako toki entitateen baliabideak.
22. gaia. Sozietate anonimoen eta erantzukizun mugatuko sozietateen egungo arauen ezaugarri funtsezkoak.
23. gaia. Sozietateen urteroko kontuak. Motak, prestakuntza, egiaztatzea, onetsi eta gordetzea. Merkataritzako Erregistroa: inskripzioaren kontzeptua, edukia eta esanahia.
24. gaia. Kontuen auditoretzaren legea eta erregelamendua. Kontabilitate institutua eta kontuen auditoretza: antolaketa eta egitekoak.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	